

Ikastolara sarrera Ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta eskailerak igota Ate Urdin Handitik tunelera joan. Ikasleak markatutako lekuan zain egon beharko dira segurtasun tartearen errespetatuz. Geletarako sarrera-irteera **Ate urdinetik** izango da.

## IRAILAK 7-11 BITARTEAN.

**Aste honetan zehar, ikasleak 8:45-9:00 bitartean sartuko dira geletara** tuneleko ate urdinetik. Ikaslea tutore batek jasoko du eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko du tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren.

- Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago.
- Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarrez etorriko dira.
- Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.

Ikasleak eguerdian, **12:30** aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera **14:30tan izango da**, markatutako ibilbide berdinetik.

**Behin umea hartuta familiak, ezin izango da ikastolan gelditu.**

SARRERA-IRTEERA



IKASGELETARA SARRERA-IRTEERA



FAMILIENTZAKO ITXARONGUNEA

